



**Irène
Némirovsky**

**SUITE
FRANTSESA**

ALBERDANIA



Irène Némirovsky **SUITE**
FRANTSESA

ALBERDANIA





SUITE FRANTSESA
Bertsio argitaragabea

*Bitartean ibillico dira becatutic becatuta amilduaz; oraiñ pensamentu batean, guero seago itz loyak gozotoro aditzean: oraiñ escuca, edo queñada
batean, guero musu edo laztanetan: oraiñ ipui ciquiñac contatzen, guero dantzan, edo dantza ondoan alberdanian.*

J.B. AGIRRE

Jatorrizko izenburua: *Suite française (Version inédite)*

Denoël argitaletxeak argitaratu zuen lehen aldiz.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza izan du liburu honek.

I. ARGITARALDIA: 2022KO AZAROA.

© 2020, Éditions Denoël

© Itzulpenena:

«Ekaitza ekainean»: 2022, Joxe Mari Berasategi

«Dolce»: 2011, Mikel Garmendia

«Irakurleari», «Hitzaurrea», «Oharra» eta «Hitzatzea»: 2022, Joxe Antonio Sarasola

«Eranskina»: 2022, Joxan Elozegi

© Argitaraldi honena: 2022, **ALBERDANIA, SL**

Istillaga, 2, bajo C - 20304 Irun

Tel.: 943 63 28 14

alberdania@alberdania.net

www.alberdania.net

Inprimatzailea: Ulzama (Uharte, Nafarroa)

ISBN: 978-84-9868-709-5

ISBN digitala: 978-84-9868-710-1

Legezko gordailua: D. 1092/2022



SUITE FRANTSESA

Bertsio argitaragabea

IRÈNE NÉMIROVSKY

ITZULPENA JOXE MARI BERASATEGI («EKAITZA EKAINEN»)
MIKEL GARMENDIA («DOLCE»)
JOXE ANTONIO SARASOLA («HITZAURREA», «OHARRA» ETA «HITZATZEA»)
JOXAN ELOSEGI («ERANSKINA»)

EDIZIOA ARITZ GALARRAGA

ALBERDANIA

eleberria



AURKIBIDEA

IRAKURLEARI

HITZAURREA

OHARRA

SUITE FRANTSESA

 EKAITZA EKAINEAN

 DOLCE

ERANSKINA

HITZATZEA

IRAKURLEARI

Ume-umea nintzenetik, *Suite frantsesaren* eskuizkribua beti egon zen hor, gure begi bistan, etxeko egongelan.

IMEC Argitalpen Garaikidearen Memoriaren Institutuaren eskuetan utzi aurretik, gure ama Denise Epstein-Dauplé arduratu zen bere seme-alaba eta ilobentzat irakurtzeko moduan jartzeaz. Bi urte eman zituen, lupa baten laguntzaz, ehunka orrialde haietako bakoitza, lerro ia ikusezinezko sareak deszifratzen. Pazientziarik handienaz lortu zuen irakurri ahal izatea bere amak, Irène Némirovskyk, «gizonen» erokeriak deportatu aurretik idatzita utzi zuena.

Orrialde haietako batzuetan oraindik ere igartzen dira haren malkoen arrastoak. Gero, lan guztiaren transkripzioa amaitu ondoren, kontzientzia lasaiturik, liburua laga eta ohiko bizimoduari lotu zitzaion berriro. Bere seme-alaben gain utzi zuen amonaren talentuaz jabetzeko erantzukizuna, eta ikertzaileen gain eskuizkribu honetan jaso dagoen eduki baliotsua aztertzeko ardura.

Inortxok ere, garai hartan, ezin zezakeen imajinatu amaitu gabeko eleberri hura –hasieran maleta batean ezkutatua, gero etxeko liburutegian ongi gordeapatuaren eraginez mundu guztian zehar milioika pertsonak irakurriko zuten best-seller bat izatera iritsiko zenik, eta Irène Némirovskyren izenak, jadanik ezaguna gerra aurrean ere, bere lekua aurkituko zuenik idazle handien panteoian.

Ikertzaile batzuek bazekiten liburuaren lehen zatiak –*Ekaineko ekaitza* izenekoak– bazuela bigarren edizio bat.

Amari entzunda, bagenekien gure aitona Michel Epstein arduratu zela bere emaztearen testuak zuzentzeaz eta mekanografiatzeaz. Aitonaren nortasunari buruzko beste oroitzapenik ez daukagunez, niri beti zoragarria iruditu izan zait bien arteko konplizitate sinboliko hori.

Amak ez zion sekula aipatu bere editoreari bertsio mekanografiatu hura. Guri ere ez zigun ezer esan haren edukiari buruz. Eleberriaren irakurle guztiak

bezala geunden geu ere, liluraturik, lerro urdin ñimiño haiek jende arruntarentzat irakurgarri bihurtzeko egin behar izan zuen lan zehatz eta eskergagatik.

Eta, halako batean, Teresa Lussonek *Approches*¹ aldizkarirako eginiko lana aurkiturik, eta Olivier Philipponnaten aholkuei jarraituz, amak bibliotekan gordea zeukan karpeta batean eskuizkribuaren ale bat aurkitu nuen, izenburu honekin: «Version originale de *Tempête en juin*!» [*Ekaineko ekaitzaren jatorrizko bertsioa*]. Oraindik ere ordu asko eta asko eman beharko zituen berak bertsio honen eta eskuizkribuko testuaren artean zeuden desberdintasun guztiak aurkitzen eta adierazten.

«Bertsio original» horren lehen lerroak irakurri bezain laster ohartu nintzen argitaratzea merezi zuen istorio bat neukala begien aurrean. Ikertzaileek adieraziko dute eskuizkribu honi buruz daukaten irizpidea. Neuri dagokidanez, nik ezin niezaiekeen ezkutatu Irène Némirovskyren irakurle guztiei gure amak eginiko lana. Gure amonaren eskubideen jabe direnen izenean, eskerrak eman behar dizkiot Éditions Denoël argitaletxeari beste behin ere gure proiektua babesteagatik.

NICOLAS DAUPLÉ
Irène Némirovskyren eskubideen jabeen izenean

Oin-ohar:

¹ Teresa M. Lussone, «Un roman sans “chichis”. Illusion comique et réalité tragique dans la deuxième version de *Suite française*» [*Berriketarik* gabeko nobela bat. Ilusio komikoa eta errealitate tragikoa *Suite frantsesaren* bigarren bertsioan]. *Approches*, 180 zk. «Irène Némirovsky» zenbaki berezia, 2019ko azaroa.

HITZAURREA

2004ko azaroaren 8an, Renaudot saria eman zioten maisulan amaitu gabe bati. Orain dela hirurogeitik gora urte hildako idazle batena zen, zeina Frantziako jendarmeriak atxilotua eta handik lau egunera Auschwitzera deportatua izan baitzen 1942ko uztailaren 13an. Irène Némirovskyren *Suite frantsesa* azken urte hauetan ospetsu bihurtu da mundu guztian. Zenbat eleberrik lortu dute, honek bezala, gertatzeaz batera fikzio bihurtzea Frantziaren aurkako eraso eta okupazioa?

Hamasei urte igaro dira. Irène Némirovskyren obra jadanik erabat eskuragarri dago, salbuespen bakar hauekin: amaitu gabeko albisteak, 1930eko hamarkadan argitaraturiko artikulu eta kritikak, eta izenburua besterik iritsi ez zaigun zenbait testu.² Bere eleberriak inspirazio iturri izan dira zinemarako, telebistarako, antzerkirako, komikietarako, bai eta operarako ere. Eskoletan, *Suite frantsesak* jadanik hartua du *Le Silence de la mer* [Itsasoaren isiltasuna] eleberriaren lekua. Eta Issy-l'Évêquen, idazlea bere alabekin bazterturik 1940ko maiatzetik atxilotu zuten arte bizi izan zen Saona eta Loirako herrian, gaur «ibilbide literario» batek ahalbidetzen die bertara joaten diren bisitari ugari. Irène Némirovskyk bere azken idazkietan deskribatu zituen zenbait bazter identifikatzea.

1940ko udazkenean bururatu zitzaion porrotari buruzko eleberri erraldoi bat idazteko ideia, behin-behineko izenburua *Izua* edo *Ekaitza* izango zuena. Izan ere, Jean Fayardek, «Les Biens de ce monde» [Mundu honetako ondasunak] *Candide* aldizkarian argitaratu behar zuenak, bat-batean salatu egin zuen eta bertan behera utzi bien artean hitzartua zeukaten kontratua, juduen aurkako legeari men eginez, eta une hartantxe jabetu zen Irène Némirovsky nekezko eta larridurazko egun luzeak jasan beharko zituela Issy-l'Évêquen eta bere «maisulana» izango zena idaztea zela horri aurre egiteko zeukan bide bakarra; hori zen behintzat berak sinetsi nahi zuena.

Berehalaxe, zenbait ideiaren zirriborroa egin zuen porrotari buruz «moldatu nahi zuen eleberri horretarako»: «[...] nola biziko zituzten ekaineko egun horiek hainbat lagunek. [...] Nekazariak, aberats jendeak, ofizialak, judu intelektual errefuxiatuak, politikariak; ahaztu ohi ditugun zaharrak, errespetatzen ditugula esan bai baina txakurrak bezala bertan behera uzten ditugun horiek; beren umeak salbatzearen gogortasun eta egoismorik harrigarriena erakusten duten ama horiek. Batean harro baino harroago eta hurrena berehalaxe lur jota ikusten ditugun horiek; gazteria, zauritua bai baina ez garaitua. Bai interesgarria litzatekeela! [...] Eguneroko bizimoduak, beren betiko zereginetan; gero, nola jokutzen duen bakoitzak, bonbardaketen erasopean, ihesaldian. Ai, baina bi eleberri horiek behar bezala egiteko, askatasuna beharko nuke eta bizitza segurtatua eduki hamar urtez!³».

Bolada horretan, bere alabek eta senarrak goizero ikusten zuten Hôtel des Voyageursetik irteten bere karpetaekin. «Gosaldu bezain laster –haren alaba Denise Epsteinek 1957an esan zigunez–, amak landarako bidea hartzen zuen. Batzuetan hamar kilometroraino egiten zituen gogoko zuen txoko bat aurkitzeko eta hantxe jarduten zuen orrialdeak zirriborratzen bata bestearen ondoren. Bazkaltzera itzultzen zen, eta bazkalondoan berriro irteten zen eta ez genuen gauera arte ikusten»⁴. Orrialdea joan, orrialdea etorri, pertsonaia zerrendak osatu zituen, gehienak benetako gizakietan inspiratuak: «kabroiarena» egiteko, adibidez, Joseph Koehl hautatu zuen, Banque des Pays du Nordeko zuzendari nagusia, 1940ko urrian Michel Epstein kaleratu zuena, zer eta erasoaldi batetik babesteko bere lanpostua abandonatu zuelako...

Azaroaren 19an honela ekin zion: «Gas maskarak eta jantziak alde batean kokatuak zeuden, naftalina usaina zerion gelaxka ilunean, familiako ume txikienentzako armairu gisa erabiltzen zen lekuan. Negua igaroa zen, lehenbizikoa gerra deklaratu zenetik». Berotze ariketa soil bat, gaiari heldu aurretik, baina bertan behera utzi zuen sarrera hori. Handik hiru hilabetera, otsailaren 23an, gorde egin zuen hasierako izenburua: *Ekaitza ekainean*. Lasaiturik ikusi zuen Colettek ez zituela baliatu gertakari haiek bere *Journal à reboursen*⁵ [Alderantzizko egunkaria], pasarte anekdotiko bakar batean izan ezik, eta horrek kemena eman zion. Jadanik, bost zatitan banaturiko eleberri bat aurreikusten zuen. *Gringoireko* zuzendariak, Horace de Carbucciak,

azkenean argitaratu egin zuen «Les Biens de ce monde» 1941eko apiriletik ekainera bitartean, sinatzeko «emakume gazte bat» izengoitia erabiliz. Némirovskyk berehalaxe ekin zion bigarrena idazteari, ordainez «berrogeita hamar mila libera jasotzekotan»⁶. Zoritxarrez, 1942ko neguan, Carbuccia jaunak adierazi zion ez zeukala gehiago arriskatzerik, eta horrek haren «nekea, tristura eta nahigabea»⁷ areagotu zituen. Aldi hartan, Némirovsky *Dolce* eta *Captivité* [Gatibualdia] lantzen ari zen, *Tempêtes* [Ekaitzak] saileko bigarren eta hirugarren atalak. «Etsi gabe lanean jarraitu beharko», horixe zen egin zezakeen bakarra, apirilaren 24an idatzi zuenez. Ekainaren 17an amaituak zeuzkan *Dolce*ko 17 kapitulu. Bere pertsonaien patua imajinatzen zuen *Captivité* atalean, eta, jarraian, amaierako bi atalak etorriko ziren, *Batailles* [Batailak] eta *La Paix* [Bakea], «gizabanakoaren azken garaipenarekin», eta horrek guztiak «mila orrialdeko liburu lodi bat osatuko zuen». Aldi hartan erabaki zuen *Ekaitza* izango zela sail guztiaren izenburu orokorra. Corte idazleak, pentsatzen zuen Némirovskyk txantxetan, argitaratzea zeukan aldizkari klandestino batean poema bat komunismo kutsukoa, edo gauza gorrotagarriez esan ohi den bezala «kaka usaina» dariona, horrekin «zapuztuko duelakoan Vichyko gobernuak alemanen aurrean daukan eragina... ekainaren 22ko trumoi erauntsira arte», orduantxe ezabatuko baitziren eginak zeuzkan kalkulu guztiak: «Corte, autorea bera zela iradoki ondoren, aztoraturik, geratzen zaizkion kopia guztiak errez, beldurrak airean, etab. Ikusiko dugu»⁸.

Uztailaren 11n, azken pasarteei buruz gogoeta egiten ari zela —«edo jadanik imajinatzeraz ere ausartzen ez naizen garaipena, edo zirrara, edo borroka, edo *Bake germanikoa*, edo nahi duzuen, edo Jainkoak nahi izango duena...»—, Irène Némirovsky oraindik ere «*Ekaitzako* kapituluak antolatzeke asmotan» zebilen. Handik bi egunera atxilotu zuten bere etxean, alaben eta senarraren aurrean, Pithivierseko esparrura eramane zuten 15ean, eta handik Auschwitzera 17an.

GAUZAK HORRELA, esan al dezakegu badela *Ekaitza ekainean* obraren bertsio bat data horretan bertan behera utzia? Erantzuna ezezkoa da, eta Denise Espiteinek, Némirovskyren alaba zaharrenak, inork baino hobeto zekien hori.

Ikusi nuen azken aldian, 2013ko martxoan, bere bulegora eraman ninduen. Apalategiak arakatu zituen, ezertxo ere ez zidala ezkutatu ziurtatzeko, eta azkenean karpeta bat atera zuen altzari gurpildun batetik.

–Hau erakutsi al dizut inoiz?

Ikatz paperezko koaderno bat zen, izenburu honekin: «Tempête en juin. Version 2 corrigée» [Ekaitza ekainean, 2. bertsio zuzendua]. Lan mekanografiatu baten kopia zen, Irène Némirovskyk noizbait aipatu zuena, bere lan guztia amaiturik berau osatuko zuten «1.600 orrialde mekanografiatuak» aurreikusten zituenean. Koaderno hark 309 orri bakarrik zeuzkan, Michel Epsteinek mekanografiatuak eta zalantza gabe bere emazteak berriro irakurriak, han-hemenka ageri ziren ohar eta zuzenketa ugariak erakusten dutenez. Bi kapituluk, «Pêcheur d'âmes» izenburukoak [Arimen arrantzalea] eta koadernotik erauzitako orriei zegokienak, frogatzen zuten bertsio hau *Ekaitza ekainean* obraren bigarren bertsioa zela, lehenbizikoa baino laburragoa eta oso landua, baina, baita ere, lehenbiziko eskuizkribu hura izugarri aberatsa eta luzeegia zela liburuxkatan kapituluka emana izateko. Hemen, gogorarazi beharra dago Irène Némirovskyk bere pertsonaietako bakoitzaren nortasun biografikoa garatzen zuela ezer argitaratu aurretik, berak «eleberriaren aurreko bizitza» deitzen zuena; nahiz eta izaera desberdinekoa izan, zeren zentzu hertsian *Suite frantsesaren* eskuizkribua bera ere gertuago baitzegoen obraren aurreko bizitza bat izatetik, *Ekaitza ekainean* lan mekanografiatua izango zen, «amaiera» hitza dakarrena alegia, eskuizkribuan dauden ohar pertsonal ugariak kenduta, bigarren eta behin betiko obra.

«2. bertsio zuzendu» hura ezaguna egiten zitzaidan. 2013ko urtarrilean, filologiako ikertzaile gazte batek, Teresa Lussonek, IMECen kontserbatzen ziren jatorrizkoetatik garbira pasea zeukan, eta ale bat bidali zidan, poltsikoko liburu gisa argitaratua, nik Denise Epsteini helarazi niezaion. Esan beharrik ez dago hark ez zuela espero horrelakorik: zur eta lur geratu zen. Askoz geroago ulertu nuen horren arrazoia, Nicolas Dauplék galdetu zidanean:

–Amak ez al zizun hau erakutsi?

Ez, Denisek ez zidan sekula erakutsi hura: *Ekaitza ekainean* obraren bi bertsioak sakonki eta zehaztasunez aztertu ondoren, hasi eta buka, eskuz berriatzi zituen, hainbat hilabetetako lana hartuta, zalantza gabe. Konklusioa

argi zegoen: bi lanak ere amaitu gabeak zeudela iritzirik –baina osoak halere–, 2004an luzeena eta zaharrena argitaratzea erabaki zuen, amaren karpetan gordea egon zena, eta zalantza gabe berak gehien maite zuena. Jarraian, argitalpen honetan bezalaxe, *Dolce* eleberriari zegokion eskuizkribua jarri zuen.

BAINA ITZUL GAITEZEN 2004ra. *Suite frantsesa* agertu baino lehentxeago, Denise Epstein aurkitu nuen, bere amaren biografia bat idazten ziharduela. Eta handik aste batzuetara, ezagutu berri nuen eskultore batek deitu zidan, Catherine Descarguesek. Ez nekien kazetaria zenik eta hainbat artikulu idatziak zituenik arteari buruz –pinturaz, antzerkiaz, musikaz, zinemaz, literaturaz– gerraosteko egunkarietan.

–Eta orain –galdetu zidan– zertan ari zara lanean?

–Irène Némirovsky.

–Irène Némirovsky... Ez nuen bera ezagutu, jakina, baina bai haren alaba, gerra amaitu eta hamar edo hamabost urte geroago. Idazlearen hil osteko eleberri bati buruzko artikulu bat zela eta.

Gerraosteko hamar edo hamabost urte: *Feux de l'automne* [Udazkeneko suak], inolako zalantzarik gabe. Denise Epsteinek fotokopiatzen utzi zidan prentsa dosierrean ez nuen inolako arazorik izan *La Tribune de Lausannen* agertutako artikulu hura aurkitzeko. Jean-Claude Davenek izenpetua zegoen –izengoitia zen–, 1957an datatua, huraxe izan zen «liburuaren existentzia aipatu zuen lehenbizikoa, eta bakarra askoz geroago arte, tamalez amaitu gabe geratutako liburua eta idazlearen maisulanetako bat: *Suite frantsesa*». Era berean aipatzen zuen errusieraz idatzitako poema batzuk eta ingelesezko hainbat atsotitz zekartzan «liburuxka bat», 1921ean bertan behera utzia eta 1938an berriro hartua, idazlearen eleberri eta ipuinen gaiak zekartzana. «Oso luzaroan», jarraitzen zuen Davenek, «ez genuen jakin paper horiek existitzen zirenik ere, baina Irène Némirovskyren bi alaben zaindari berriki hilaren etxean maleta bat aurkitu genuen nobelagilearen azken idazkiekin»⁹.

Maleta bat? Denise eta Élisabeth ahizpek, beren gurasoen atxilotetaren ondoren, ez al zuten, bada, beti eurekin gorde ezkutaleku batetik bestera, barruan zeuzkan dokumentu baliotsuekin? Michel Epsteinek, atxilotua izan eta

Auschwitzerako bidean, aurrena Creusoteko presondegitik eta hurrena Drancytik igarotzerakoan, ez ote zuen astirik izan bere alabei azken eskari hau egiteko: «Ez utzi ezergatik ere maleta hori; bertan dago zuen amaren eskuizkribua»¹⁰? Nola uler daiteke, artikuluak dioena egia bada, maleta hori hamabost urtez bere etxean gorde izana Julie Dumotek, bi umezurtzen zaindaria?

1941eko ekainean, bigarren «Statut des Juifs» [Juduen estatutua] zelakoaren promulgazioak argi eta garbi debekatu zion berauei «erredaktore gisa jardutea egunkarietan zein edozein motatako aldizkarietan, herri mailako berriemaile gisa ere», eta, ondoren, Issy-l'Évêquen finkatuak zeuden tropa alemanak Errusiako frontera abiatu izanak areagotu egin zuen Irène Némirovskyk «kontzentrazio esparrura deportatua izateko zeukan arriskua»¹¹. 22an, Julie Dumoti idatzi zion, bere aitaren konpainia dama ohiari, ahalik eta azkarren etor zedin Saona eta Loira departamendura, bera hantxe zegoela, Hôtel des Voyageursen, senarrarekin eta alabekin, eta, gezurra badirudi ere, Wehrmachteko ofizialen babespean. Notarioaren bulegoan testamentu gisa utzitako gutun batek Julieri uzten zion, ezbehar kasuan, Denise eta Élisabethen tutoretza eskubidea. «Azkenik, zoritxar larriena gertatuko balitz ere, Loctinen¹² etxean dago amaitzeko astirik izango ez dudan eleberri baten eskuizkribua, izenburua *Ekaitza ekainean duena*».

Horrela, 1942ko uztailaren 13an Irène atxilotu zutelarik eta gero urriaren 13an haren senarra, Julie Dumoten izena agertu zen Albin Michelen etxean *Les Biens de ce monde* liburuari zegokion kontratuaren sinatzaile gisa; Denise eta Elisabethen tutore legal bihurtu zen, eta, horrez gain, haren ardurapean geratu zen *Ekaitza ekainean* izenburuko eleberria, *Suite frantsesaren* lehen zatia, alegia. Urri haren amaieran, bi jendarme eta miliziano bat etorri zirelarik herriko eskolara, Juliek ozta-ozta izan zuen astia Bordelera ihes egiteko, Leon Némirovskyren, Irèneren aitaren inzialak zituen maleta batean argazki batzuk, zenbait bitxi eta paper batzuk harturik, bere ardurapeko bi neskatok, hamabi eta bost urtekoak, berekin zituela.

Ia segurutzat jo daiteke –umeak artean adingabeak zirenez, eta laster patuak berriz ere ihes egitera behartuak– maleta hura berak eduki zuela gordeta,

Bordelen, 1956ko maiatzaren 31n hil zen arte, nahiz eta ordurako Denise Epstein adin nagusikoa izan, eta 1953an ezkondua.

Urte haietan guztietan, ez dirudi Julie Dumot bere ardurapean zeukan eskuizkribuaz interesatu zenik, zeina irakurtzeko oso nekosoa baitzen, egia esan behar bada. 1946an, dena dela, beronen existentzia aipatu zion André Sabatierri, 1933az geroztik Irène Némirovskyren editorea izan zenari. Haren erantzuna oso bitxia izan zen: «Oker ez banabil, gogoan dut hitz egin genuen orain hurrengoan Irène Némirovskyren argitaratu gabeko eleberri bat aipatu zenidala, okupazio garaian bere lagunetakoren bati utzia eta bidegabeki beronek gorderik zeukana. Zertan da arazo hori? Nire ustez, egoera argitzea eta akordio batera iristea komeniko litzateke, batez ere eleberri hori erabat berria bada, alegia ezein astekari edo aldizkaritan argitaratu gabea. Gaur egun oso eskaintza interesgarriak daude arlo honetan, eta, ahal izanez gero, onuraduna zeu izatea gustatuko litzaidake»¹³. Nola ulertzen da nahaste hori erantzunik gabe geratu izana? Eta nor izan liteke Irène Némirovskyk bere eskuizkribuaren arduradun utzi zuen «lagun» susmagarri hori, Julie bera besterik? Eta, batez ere, nola justifika liteke hark hainbeste urtetan berekin eduki izana, maletarekin batera, «Némirovskyren editoreari edo alaben ondasunak kudeatzen zituen notarioari itzuli beharrean»¹⁴? Non eta André Sabatierrek ez zuen erabaki, karpeta hura eskuratu zuelarik, ez zela gehiegizko lana emango ziokeen nahaste-borraste bat besterik. Baina nola uler daiteke Denisek eta Élisabethek 1956. urtera arte itxaron behar izana eskuizkribu hura *Feux de l'automne*rekin batera aurkitzeko, Michel Epsteinek mekanografiatua, eta autoreak eskuz eginiko zuzenketekin?

HALA, Catherine Descargues izan zen, familiakoa izan gabe, 2004ra arte *Suite frantsesaren* eskuizkribua, gaur egun imecen kontserbatzen den altxor baliotsu hori kontsultatu zuen lehenbiziko pertsona eta beharbada bakarra. Egia bada Denisek eta Élisabethek eskuizkribu hura Frantziako Jendarmeriak 1942ko uztailaren 13an geldiarazitako obra baten zirriborrotzat hartzen zutela, dena zuzenketa eta ohar pertsonalez bete,¹⁵ era berean egia da ulertzekoa den halako begirune batek eragotzi ziela erlikia hura publikatzen ausartzea –Auschwitzera

sekula joatera ere ausartu ez ziren bezalaxe—, nahiz eta gerraosteaz gero gauza jakina izan nobela hau existitzen dela. Irène Némirovskyk berak «1943ko udaberrian» argitaratzeko asmoa zuen, eta halaxe adierazi zion, esate baterako, bere editoreari: «Egin daitekeen gauza bakarra, nire ustez, Julieren liburua argitaratzea da, zuk ahal duzun bezain laster». Zehazten zuenez, «hainbat liburukitan zatituriko eleberria zen», eta egilearen iritziz, «[bere] bizitzako obra garrantzitsuena»¹⁶. 1946ko abuztuan, Jean-Jacques Bernardek, Compiègneko kontzentrazio esparrutik bizirik aterea, bere Normandiako etxean Denise hartu zuelarik uda bertan igaro zezan, publikoki aipatu zuen lan horren existentzia: «Irène Némirovskyk ez ditu uzten esku hutsik bere miresleak. Lanean jarraitu zuen azken egunera arte. Haren lana ez zen hil berarekin batera. Argitaratu zituen lanez gainera, hainbat eskuizkribu baliotsuk bizirik mantenduko dute haren oroitzapen literarioa. Bere Le Nivernaiseko egonaldian, Errusiako bizitzari buruzko eleberri handi zikliko bat prestatu zuen, baina zoritxarrez berorren zati batzuk besterik ez da kontserbatzen»¹⁷.

Eleberri errusiarra, adierazpen harrigarria, handik laster berriro aurkituko duguna Irène Némirovskyren beste ezagun baten, Pierre Loewel abokatu eta kritikariaren 1947ko idazki batean: «[...] bada oraindik espero ez genuen ustekabe bat: gerra garaiko urteetan bere gai gogokoenak bertan behera utzi nahi izan zituen buru-belarri jarduteko errusiar eleberri zikliko batean, zeinaren zati batzuk bakarrik kontserbatzen diren [...]»¹⁸. Ez hain harrigarria, halere, kontuan hartzen badugu *Gerra eta bakea* gogoan zeukala une oro *Suite frantsesa* liburuan lanean ziharduen denbora guztian. Horretan pentsatzen zuen 1940ko azaroaren 19an, ekaineko porrotari buruz bere lehenbiziko ideiak azaldu zituenean: «Aparteko garrantzia eman behar litzaieke haurrei, haientzat aberasgarria gertatuko delako, niretzat ere bere garaian Errusiako iraultza gertatu zen bezalaxe»¹⁹. Horretan pentsatzen zuen 1942ko uztailean, bere atxiloketa baino hiru egun lehenago, buruz errepikatzen zituelarik *Gerra eta bakea* obrako hitz haiek, *Dolceko* azken lerroekin lotuak: «Elkartasun posible bat talde baten eta bestearen artean. Aipua: В то время как у Ростовых танцевали в зале шестой англез под звуки от усталости фальшививших музыкантов с графом Безуховым сделался шестой

уже удар»²⁰. Biharamunean, bere eskuizkribuarekin lanean jarraitzera Maieko basora joan zenean, zer uste duzue eraman zuela bere poltsan? «*Anna Karenina*-ren II. liburukia».

1917ko otsaileko eta urriko iraultzei buruz, Irène Némirovskyk ezin zezakeen eduki oroitzapen lauso batzuk besterik, «*Les Fumées du vin*» [Ardoaren lurrina] edo «*Aïno*» bezalako kontakizun fantasmagorikoetarako iturri izan zitezkeenak. Ezer ez gai horren inguruan urteak eta gizakiak konbinatuko zituzkeen fresko bat iradoki ziezaiokeenik –«a clash of peoples», idatziko zuen 1941ean, Thomas Hardyren *The Dynasts* [Dinastiak] gogoratu. Halere, ezinezko zen berak ahaztu izana momentu hura, «gizakiak oraindik bere ohitura errukitsuak galdu ez dituenekoa, oraindik deabrua beraz nagusitu ez bada ere gero eta gehiago hurbiltzen denekoa, eta horrek arima asaldatzen dio»²¹. Eta une hartantxe gertatu berria zen: exodoko «izua». Eleberrian Péricand andreak bertan behera utziko ditu «apaingarri hutsalak» eta horien lekua hartuko dute «kristau karitateak eta mendeetako zibilizazioaren otzantasunak», 1917an *dvornika* bere eraikinean exekutatzeko simulakroan soldaduen sadismoaren menpe aurkitu zenean bezala.

Catherine Descargues beste inor baino lehen ohartu zen, frogen arabera, eleberri hura ez zela Errusiako bizitzari buruzkoa. «Zoritxarrez amaitu gabe» zegoela gogoraraztearekin konformatu behar izan zuen, eta horrek pentsarazten digu berak behintzat izan zuela dena irakurtzeko astia. Denise Epsteinek ere izan ote zuen astirik?

–Zalantza gabe –izan zen haren erantzuna–. Suitzara bidali zidan.

Hasteko, ia ezinezko iruditzen zitzaidan Irène Némirovskyren alabek horrela igorri izana –posta bidez!– berreskuratu berri zuten eskuizkribu hura, beren amaren atxiloketa baino hamabost urte geroago haren oroitzapen gogoangarrienak itzultzen zizkiena. Izenburua bera, *Suite frantsesa*, ezinezkoa da Catherine Descarguesek asmatu izana. Gainera, gutun batean, argi ikusten da: «Egun batzuk barru bidaliko dizut zeure amaren eskuizkribua», idatzi zion Deniseri 1957ko apirilaren 12an. «Zoritxarrez, esan behar dizut amaitu gabe dagoela eta ezingo dela argitaratu»²².

NOLAKOA ZEN eskuizkribu hura? Orri zulatuzko sorta lodi bat, ertz batetik besteraino iristen ziren tinta urdinezko lerro estuz beteak, inoiz ezabatuak, beste batzuetan arreta handiz sarturiko eskema, zerrenda, ohar eta gogoetak tartekatuak zituztela, batzuk benetan izugarriak: «Ene Jainkoa! Zergatik erasotzen dit herri honek? Gorroto nauenez gero, azter dezagun egoera hoztasunez, ikus dezagun nola galtzen dituen bere ohorea eta bizia». Begirada hotza, ironia ere bazter uzten ez duena; horren lekuko Mantmorteko bizkondesaren ahotan jartzen duen bertso hau, «trebezia handiz errimatua»:

*Bera da, gure mariskala,
benetan gizon kabala,
gure ametsetako heroia,
zinez dagokio erregearen koroia.
Gure bihotza ez bedi izan zitala
gogoan edukiz mariskala!²³*

LEHENBIZIKO ORRIALDEAN izenburu hau ageri da: «*Suite frantsesa*. 1. liburukia: *Ekaitza*». Goian eskuinean, «Issy-l'Évêque, 1940-1945» datak, eleberriaren muga kronologikoak, zeinari falta zaizkion zatien izenburuak lirartekeen: *Captivité*, *Batailles* eta *La Paix*. Juxtu azpian, gurutze batez marraturik, aipamen hau: «Eleberria (behin-behineko izenburua: *Panique* [Izua]) edo *Ekaitza ekainean*». Hori guztia larruzko karpeta batean dago, eta hegal batean, izenburuaren parean, hainbat ohar ageri dira, horien artean lehenagoko eleberri batzuen izenburuak; *David Golder*, *Le Vin de solitude* [Bakardadearen ardoa], *Jézabel*, *Deux* [Bi], *Le Biens de ce monde...* Beste hegalean, «orri solteen erosketa tiketak»²⁴, zazpi urterako bermea zutenak, dio 1927ko abenduaren 28an erosi zirela, eta horrek adierazten digu bertan gordeak egongo zirela *David Golder* ezkeroko eskuizkribu guztiak. Karpetatik atera egingo zituen egileak bere lana amaitu zuenean, orain galdua den giltza bat erabiliz, eta kartoizko kaxetan gordeko zituen arreta handiz etiketaturik. Hantxe egon ziren harik eta 2005ean Albin Michelen artxiboetan aurkitu eta urte hartan bertan IMEC erakundera eramane ziren arte. Kaxa horiek Parisera eramane zituen André Sabatierrek, idazleari egin zion bisita batean, 1942ko apirilaren lehen egunetan.

Horrela ulertzen da *Suite frantsesatik* kendutako hainbat orri ere kontserbatu izana, adibidez, «Gatibualdirako oharrak» (1942ko martxoa) eta «*Pêcheur d'âmes*» izenburuko bi kapituluak, Philippe Péricand apaizaren heriotzaren bertsio duinago bat eskaintzen dutenak, ez bere ardurapean dauzkan umezurtzek lintxatua. Areago, gaur posible da Irène Némirovskyk noiz idatzi zituen jakitea ere: 1941eko uztailaren 24aren ondoren, gutun baten bidez jakin zuen bere xehetasun guztiakin nola gertatu zen Roger Brécharde heriotza, bere pertsonaia inspiratu zion apaizarena alegia, frontean hila bere gizonen buruan, 1940ko ekainaren 20an, Vosges departamenduko herri batean. Hogeita hemezortzi urteko auvernier apaiz horrek 1938an eman zituen bere lehen urratsak fede katolikorantz. Ankerkeria irudituko zitzaion «abade» jator hari, bataioagatik inolako jazarpenetatik babestua ez zegoenez, hasieran berarentzat pentsatua zeukan patu ikaragarria jasanaraztea... *Ekaitza ekainean* lanaren lehenbiziko erredakzioa 1941eko apirilean amaitua bazegoen, pasarte horrek erakusten digu, bestalde, ondorengo liburukietan bidea zabalik utzi zuela gertakizunen arabera aldaketak sartzeko.

Gaur, *Ekaitza ekainean* atalaren «2. bertsioaren» argitalpena, hainbat gertaera argitaratugabe eskaintzen dituela alde batera utzita, ez da inolaz ere oker baten zuzenketa, Denise Epsteinen lan eskergari egiten zaion omenaldi bat baizik, 1956az gero jardun baitzuen bere bakardadean testu hura irakurtzen, berrirakurtzen, deszifratzen eta konparatzen, amarengandik sekula gehiago aldendua izatea eragotzi nahian eta bere tinta amarenarekin nahasturik uzteko. Irakurtzera goazen orrialde hauek izan daitezela betirako elkartasun horren lekuko.

OLIVIER PHILIPPONNAT

Oin-ohar:

2 Horien artean «Souvenirs de Pologne» [Poloniako oroitzapenak] irratirako idatziak eta «La Vie féminine» [Bizitza femeninoa] sailean Paris-PTTn 1939ko azaroaren 4an emanak. Ez ditugu ezagutzen, era berean, «atzerritar nobelagile nagusiei» buruzko sei jardunaldien testuak ere, Radio Parisen 1939ko urtarrilaren 4tik martxoaren 15era bitartean eman zirenak.

3 «Journal d'Issy-l'Évêque» [Issy-l'Évêqueko egunkaria], 1940ko azaroaren 19a. IMEC. 273ALM/3000/2.

4 Catherine Descargues, izengoitiz Jean-Claude Daven, «Bere azken liburua moldatzen ari zen bitartean: gogora zaitezte Irène Némirovskyz», *La Tribune de Lausanne*, 1957ko apirilaren 14a.

5 «Fin juin 1940» [1940ko ekainaren amaiera], *Candide*, 1941eko martxoa.

6 Julie Demot andreari idatziriko gutuna, 1941eko ekainaren 22a.

7 André Sabatierri idatziriko gutuna, 1942ko maiatzaren 17a.

8 1942ko ekainaren 12ko oharra, *Suite frantsesa* eskuizkribua.

9 Jean-Claude Daven, aip. art.

10 Denise Epstein, Reuters, 2006ko martxoaren 9a.

- 11 1941eko ekainaren 25eko oharra, *Suite frantsesaren* eskuizkribua.
- 12 Hôtel des Voyageursen jabea; Epstein familia han bizi izan zen 1940tik 1941eko azarora arte.
- 13 André Sabatierrek 1946ko ekainaren 19an Julie Dumoti idatziriko gutuna (Denise-Dauplé artxiboa). Julie Demot ez zen axolagabetu inolaz ere Irène Némirovskyren jabetza literarioaz: 1946an, esate baterako, Issy-l'Évêqueko Vernet estudioa idatzi zuen, galdetzeko ea bertan jarraitzen zuten nobelagileak han utziak zituen zenbait eskuizkribuk.
- 14 Susan Rubin Suleiman, *La Question Némirovsky*, Albin Michel, 2017, 344. or.
- 15 *Suite frantsesaren* eranskinean argitaratutako «eskuz idatzitako oharra» (Denoël, 2004) Denise Epsteinek eskuizkribuaren harian xeheki idatzitakoen zati bat baino ez dira. 1942ko apirilean, adibidez, Irène Némirovsky Jules Blanc pertsonaiaren ahotan jartzen ditu bere gogo egoera islatzen duten hitz hauek: «Baina hortaz, zer, ahaztu egin naute? Ni, ni? Ez da posible! Munduak bere martxan jarraitzen du, jendeak bizirik jarraitzen du, eta nik? [...] gorpu bat bezala lurperaturik nago. [...] Oroitu zaitze nitaz! Idatziezadazu, besterik ez bada! Erruki zaitze nitaz edo gorrota nazazu! [...] Ene Jainkoa, beldur naiz, beldur naiz, beldur naiz. Goiari eutsi behar diot, harrotasuna galdu gabe. Ez naiz honelako bat gertatu zaion lehenbizikoa. Baditut ezaupideak».
- 16 André Sabatierri idatziriko gutuna, 1942ko maiatzaren 4a.
- 17 Jean-Jacques Bernard, «Anabasan desagertua, Irène Némirovsky giza irudi galeria aberats bat utzi du», *Frantzia Amerika*, 1946ko abuztuaren 25a.
- 18 Pierre Loewel, «Irène Némirovskyren hil osteko bi obra», *France*, 1947ko maiatzaren 23a. Aurreko maiatzaren 16an, *Les Biens de ce monderen* harira, Loewelek honako hau idatzi zuen *L'Aurore* aldizkarian: «Badirudi ezen, Errusiako bizitzari buruzko eleberri ziklikoa idatzi aurretik –garai hartan prestatzen ari zen, eta haren zati batzuk besterik ez da kontserbatzen–, idazleak eskema berberari jarraitu ziola Frantziako bizimoduari dagokionez, zeina fintasunez eta arretarik handienaz marraztu duen era berean [...]» Loewelek ez zekien, noski, berak inspiratu zuela Langelet pertsonaia zitala.
- 19 «Journal d'Issy-l'Évêque», 1940ko azaroaren 19a. IMEC. 273ALM/3000/2.
- 20 Suite frantsesaren eskuizkributik bereizitako orrialdea. Imec, nmr 2.1. Testua lehen zatiaren 18. kapitulutik atera da: «Rostovtarren etxean dantzan zebiltzan orkestrak seigarren ingelesa jotzen zuen bitartean, desafinaturik, nekearen nekez [...] Bezoukhov kondeak atakea jasan zuen seigarren aldiz».
- 21 «Naissance d'une révolution» [Iraultza baten sorrera], *Le Figaro*, 1938ko ekainaren 4a. Urte berean, Bourget-Pailleron jaunak honako hau zioen *La Proïeri* [Harrapakina] buruz: «Bere orrialderik onenak desbideraketa-ikuspegiak dira, azken buruan erorketa baino espero ez den kontakizunak». (*Revue des deux mondes*, 1938ko uztaila).
- 22 Denise Epstein artxiboak.
- 23 *Dolceko* XIV. kapituluaren hasierarako zirriborroa, Irène Némirovsky ezabatua (2004an argitaraturiko bertsioaren XVI. kapitulua). [Mariskala, jakina, Pétain da (*Editorearen oharra*)].
- 24 Garai hartako publizitatearen arabera, «Kalamazoo erregistroak», bereziki kontabilitate datuak ongi antolaturik gordetzeko erabili ohi zirenak, ez ziren saltzen paper dendetan: zuzenean fabrikatzaileari eskatu behar zitzaizkion, Richelieu kalean.

OHARRA

Suite frantsesaren dosierrak, Caengo Argitalpen Garaikidearen Memorien Institutuan (IMEC) kontserbatzen denak, honako hauek barne hartzen ditu:

–eskuizkribu autografo bat, oharpen hauekin erregistratua: 78NMR/2/1, Denoël 2004ko argitalpenerako erabili zena eta *Ekaitza ekainean* eta *Dolce* barne hartzen dituena. Némirovskyrengan ohikoa den bezala, eleberriaren barruan hainbat orri daude tartekaturik eta oharrez beteak jadanik idatzita dagoenaren gainean, eta eleberrian oraindik idazteko dauden zatiei buruzkoak;

–idazki mekanografiatu bat, oharpen hauekin erregistratua: 78NMR/2/5-78NMR/2/10, *Ekaitza ekainean* eleberriaren lehen zatia barne hartzen duena. Bertan, eskuz idatziriko hainbat ohar daude Irène Némirovskyrenak, eta beste batzuk haren senar Michel Epsteinenak. Denise Epsteinen oroitzapenen arabera, azken hori izan zen lana mekanografiatzeaz arduratu zena;

–idazki mekanografiatu bat, oharpen hauekin erregistratua: 78NMR/2/11-78NMR/2/14, *Dolce* eleberria barne hartzen duena. Uste da Michel Epstein izan zela lan hori xi. kapitularaino mekanografiatu zuena; izan ere, xii. kapitulutik aurrera mekanografia modernoago bat ageri da, segur aski Denise Epsteinena.

Bi dokumentu nagusi horiekin batera beste txikiago batzuk daude, eleberriaren zati batzuk dakartzatenak, izenburu honekin: «Pages détachées du manuscrit» [Eskuizkributik kendutako orrialdeak]:

–78NMR/2/2: orri bat eskuz idatzia eta beste bat mekanografiatua barne hartzen ditu, «Soldadua (jarraipena)» kapituluaren zati baten berridazketarekin;

–78NMR/2/3: eskuz idatziriko bi orrialde dira, «Pêcheur d'âmes (fin)» [Arimen arrantzalea (amaiera)] kapituluaren zati baten berridazketarekin;

–78NMR/ 2/4: eskuz idatziriko bi orrialde dira, *Dolceren* lehen kapituluaren zati baten berridazketari dagozkionak.

HEMEN TRANSKRIBATU DUGUN *Ekaineko ekaitzaren* testua goiburu honekin mekanografiatutako lana da: (78NMR/2/5-78NMR/2/10). Beharrezko iritzi diogunean, egileak edo beronen senarrak arreta faltagatik eginiko huts edo okerrak zuzendu ditugu (ahazturiko artikuluren bat, oker jarritako puntuazio markaren bat, gaizki erabilitako aditz denboraren bat). Zuzenketa horiek inolako zalantzarik gabeak ziren kasuetan, ez zaigu beharrezkoa iruditu inolako azalpen oharririk sartzea. Horrez gain, ortografia normalizatu dugu.

Geure testuan kontuan hartu ditugu eskuz eginiko ohar guztiak: erantsiak, aldatuak, ezabatuak. Era berean, egoki iruditu zaigu Michel Epsteini egoztekoak diren oharrak adieraztea. Horretarako arrazoi nagusia hauxe izan da: hark tinta beltzez idatzitakoaren gainean sarritan Irène Némirovskyk lapitzez gehitutako testuak ageri direla. Oso idazkera argian eginiko zuzenketa proposamenak dira gehienetan. Ahal izan dugun neurrian, bien artean sortutako dialogo hori islatzen saiatu gara, Michel Epsteinek idazleari bere obra hobetzen laguntzeko helburuaz egiten dizkion iradokizunak baitira. Kasu jakin honetan izan ezik, ez ditugu aldaketa horiek jaso: ugariegiak eta luzeegiak iruditu zaizkigu paperezko edizio batean argitaratzeko.

DOLCERAKO, 2004an argitaratu zen eskuizkribuaren bertsioa hautatu dugu. Bigarren liburukiaren mekanografiak, amaitu gabe egoteaz gain, ez dakar inolako aldaketa esanguratsurik aipatu eskuizkribuarekin alderatuta.

AZKENIK, argitalpen honetan sartu dira *Dolce* eta *Captivité* lanei buruzko hainbat ohar, hirugarren atal baten zirriborro, 78NMR/3/1 eskuizkributik atereak eta Olivier Philipponnatek eranskinean aurkeztuak; halere, berauetan ez dira transkribatu Irène Némirovskyk ezabaturiko pasarteak.



SUITE FRANTSESA



EKAITZA EKAINEN

PERTSONAIA NAGUSIAK

Auguste Péricand-Maltête	Soieries Réunies du Rhône sozietate anonimoaren presidente ohia, Pariseko XVI. Barrutiko Haur Damutuen Obraren sortzailea, 82 urte.
Adrien Péricand	Haren semea, Ingres museoaren zuzendaria, 51 urte.
Charlotte Péricand	Adrien Péricanden emaztea, 47 urte.

Philippe, Paray le Miroirreko apaiza	26 urte.	Adrien eta Charlotte Péricanden seme-alabak.
Hubert	17 urte.	
Jacqueline	9 urte.	
Bernard	8 urte.	
Emmanuel	20 hilabete.	

Croquant andrea	Adrien Péricanden ama, 69 urte.
Léonard katua	11 hilabete.
Gabriel Corte	Letragizona, 55 urte.
Florence Beauchamp	Comédie Françaiseko kide ohia, haren maitalea, 50 urte.
Joseph Corbin	Banque Centrale pour l'Industrieren zuzendaria, 65 urte.
Arlette Corail	Opérakoa, haren maitalea, 38 urte.
Furièreseko kondea	Banque Centrale pour l'Industrieren zuzendarikidea, 48 urte.
Jeanne eta Maurice Michaud	Banque Centrale pour l'Industrieko enplegatuak, 46 eta 52 urte.
Jean-Marie Michaud	Haien semea, 24 urte.
Charles Langelet (Charlie)	Errentaduna, portzelanazko piezen bildumazalea, 62 urte.
Fernande Guillard	Gelari ohia, 40 urte.
Jules Boudot	Haren anaia, langabetua, 34 urte.
Aline Boudot	Jules Boudoten emaztea, 27 urte.
Labarie andrea	Nonnainseko baserritarra, 48 urte.
Cécile Labarie	Haren alaba, 20 urte.
Benoît Labarie	Haren semea, 24 urte.
Madeleine	Assistance Publiqueko umezurtza, 20 urte.
Marie du	Mizery zahar etxeko mojak, 31 eta 27 urte.

Saint Sacrement eta Marie des Chérubins ahizpak	
Violette jauna	Mizeryko notarioa, 45 urte.
Solange	19 urte.
Bob	Haren senargaia, 22 urte.

PRELUDIOA

Sirenen lehen ufadarekin, Pariseko argi arraro eta ilaunak, urdinez kamuflatuak, kandlek haizearekin bezala ikara egin eta itzaltzen ziren. Udaberriko gau epelak loa galarazten zienek, dohakabeek eta gaixoek, gizona partitu zitzairen maitaleek eta ilunpetan zeutzan amek, begiak malkoz erreta eta bihotzak astun, denek, arnas hartze sakon bat entzuten zuten zerumugan airatzen; gero, aiene hots bat, bular estutu batetik irteten den intziria bezalakoa. Azkenik, zerua oihuz betetzen zen. Gizonek itsasoarekin egiten zuten amets, zeinak aurrean eramaten baititu olatuak eta harriak; beste batzuek, martxoan basoak astintzen dituen ekaitzarekin; edo korrika astunean doan idi saldo batekin, apatxez lurra dardaran jarriz. Akabo loa. Kostata begiak zabaldu eta galdetzen zuten:

–Alarma da?

–Niri bost axola. Ohean geldituko naiz: ez dut beldurrik; bonbak ez dituzte inguru honetan botako –esaten zuten emakumeek.

–Hala ere, bakarra nahikoa izaten da –erantzuten zuten zaharrenek, familia-agiriak, aurrezki kutxako libreta eta beren soldaduaren argazkia gutun azal batean sartuz eta bularren artera lerratuz. Batzuk, leihoak eta kontraleihoak itxi eta berriro ohean sartzen ziren, aho zabalka. Gerrako berriak txarrak ziren. Ez zituzten sinesten:

–Nola ulertu, batzuek beltz badiote eta besteek zuri? Zuek ulertzen duzue zerbait?

–14an ere orain bezain gaizki zegoen kontua –esaten zuten paristarrek hasperenka, nekez edo eszeptizismoz baino gehiago, esperantza egoskorrez.

Amek linternen argitan janzen zituzten haurrak; beso beteka altxatzen gorputz txiki astun eta epelak:

–Zatoz. Ez izan beldurrik. Ez egin negar. Alarma da.

Kanpoan, zeru samur eta garden haren azpian, etxe oro zegoen ikusgai, teilatu oro distiraz, kale oro agerian, denak ere urdinxka, izarrek argitutako zilarrezko espaloien artean. Nabaritzen zen orobat gaztainondo loreen zuritasun lausoa. Udaberriak, bere gau argitsuekin, desafio egiten zion giza zuhurtziari. Iduri zuen Sena ibaian kontzentratzen zirela argi-izpi guztiak; harrapatu egiten zituen; jolas eragiten zien bere uhinetan. Goitik ikusita, esne ibai baten ibilia eman behar zuen.

–Bera nahikoa, etsaien hegazkinak gidatzeko –xuxurlatzen zuten batzuek, beldurrez; beste batzuek esaten zuten hori ezinezkoa zela. Egiaz, ez zekiten ezer.

Sirenak isildu egin ziren. Etsaia hurbiltzen ari zen. Eraikin berrietan, zerbitzuko eskailerak babesten zituzten beirateetan zehar, bat, bi, hiru sugar txiki, jaisten: seigarrenetako bizilagunak ziren, goi arriskutsu haietatik ihesi; aurrean linterna elektrikoak zeramatzaten, ezkutatu gabe, arauak eta ilunetan egiten zuten distira gorabehera:

–Nahiago dut, ordea, eskaileran muturra ez hautsi. Bazatuz, Emma? –sen hutsez apaltzen zuten ahotsa, bat-batean lekua begi eta belarri etsaiez mukuru balego bezala. Itxitako ateen danbadak entzuten ziren bata bestearen atzetik.

Auzo jendetsuetan, gizaldrak egoten ziren beti metroan eta haren nitro usaineko babeslekuetan: txiroek elkarren beharra zuten; besoz beso egon nahi zuten, elkarrekin intziri edo barre egin, elkarrekin eman azken hatsa.

Burgesak beren etxeetan gelditzen ziren, igogailu zulotik hurbil, belarriak adi, noiz entzungo bonben erortzea iragarriko zuten leherketak eta eztandak; ordura arte ez ziren joango lasterka sotoetara –pentsatzen zuten–. Lepoa tentetzen zuten, nola basapiztia urduriek basoaren atzealdetik ehizaren zarata gerturaten denean. Hiltzeko arriskuan ere eutsi egiten zioten lotsaren kezkarri, distantziak gordetzeari eta promiskuitatearen izugarrikeriari. Emakumeak orrazteko eta gerrikoak jartzeko lana hartuta zeuden.

Hala ere, eguna berehala argitzekoa zen; malba eta zilar koloreko errainu bat ari zen lerratzen Notre Dameko dorreen, kaietako pezoien eta kaleetako galtzada harrien gainera. Defentsa pasiboaren kanoikadek durundi egiten zuten; kristal guztiek, ikaraz eta soinu erantzun. Haurrak gela beroetan jaiotzen ziren; izan ere, leihoak zigilatuta zituzten, kanpora argirik ez iragazteko. Haien negarrek gerra ahantzarazten zieten emakumeei. Hilzorian

zeudenen belarriei ere ahulak eta batere esanahirik gabeak iruditzen zitzaizkien kanoikada haiek, zarata bat gehiago agonian denari olatuen pare erasotzen dion zurrumurru makur eta lauso horretan. Haurtxoak lo zeuden, bare-bare, amaren saihets beroari itsatsita; ezpainez klaska arin bat egiten zuten, arkumeak titia hartzen duenean bezala. Alarma-aldian abandonatuak, kalean segitzen zuten saltzaile ibiltarien orgek, lore freskoz, bioleta gorrilunen sortaz, nartzisoz eta lehenengo arrosez kargatuta. Eguzkia altxatzen ari zen, oraindik guztiz gorri, zeru oskarbian. Kanoikada bat bota zuten. Parisetik hain hurbil, non txoriek hegaka alde egin baitzuten monumentuen gainetik. Goi-goian, behin eguna argituta ikusten ez diren hegazti beltz handiak, planeatzen, eguzkirantz hedaturik beren hego sendoak, zeinak ez baitzituzten airean uzkuratzen, ezpada zabaltzen, luze eta lasai. Gero, uso gizen urdin eta ederrak, urrumaka, eta enarak. Zozo bat zebilen, lasai-lasai, kale mortuan. Senaren ertzeko makal guztietan, txolarre gaztainakara saldoak, txorrotxioka lehertu beharrean. Azkenean, sotoen barrenetik, dei bat entzuten zen, oso urrun, distantziak moteldua, banda moduko bat hiru tonutan. Alarma amaitua zen.